

# EUGENIO IBARZABAL IDAZLEAK BERE LIBURUA AURKEZTUKO DU ZUMALAKARREGI MUSEOAN

- Eugenio Ibarzabal idazleak “Muñagorri, el conde y las condesas” liburua aurkeztuko du Ormaiztegin
- Aurkezpena apirilaren 2an arratsaldeko 18:30tan izango da museoan bertan

Eugenio Ibarzabalek Jose Antonio Muñagorri eskribauaren bizitzan oinarritutako eleberria idatzi du. Manuel Jose Zabala Villafuertesko kondearen artxiboa sakonki aztertu du horretarako eta, honela, bera, bere emaztea eta Etxauzko kontesa, Muñagorriekin batera, dira eleberri honen protagonistak.

Eugenio Ibarzabalek pertsonaia hauek bizitako gertaera tragikoen lekuko egiten gaitu eta hari narratibo bezala erabiltzen du, XVIII. mende erditik Lehen Karlistaldiaren bukaerarainoko Euskal Herriaren historia kontatzeko.

Datorren apirilak 2an, arratsaldeko 18:30tan, Eugenio Ibarzabal Zumalakarregi museoan izango da “Muñagorri, el conde y las condesas” liburua aurkezteko egingo dugun tertulian. Aurrez izen ematea komeni da [mzumalakarregi@gipuzkoa.eus](mailto:mzumalakarregi@gipuzkoa.eus) helbide elektronikoan.

Aurkezpena gaztelaniaz izango da.

# EL ESCRITOR EUGENIO IBARZABAL PRESENTA SU ÚLTIMO LIBRO EN EL MUSEO ZUMALAKARREGI

- Eugenio Ibarzabal presentará su último trabajo “Muñagorri, el conde y las condesas” en Ormaiztegi
- La presentación será el 2 de abril a las 18:30h en el museo Zumalakarregi

Eugenio Ibarzabal ha escrito una novela basada en la vida del escribano José Antonio Muñagorri. Para ello ha estudiado en profundidad el archivo de Manuel José Zavala, conde de Villafuertes, y ha convertido a éste, junto a su mujer y la condesa de Echaz en protagonistas del relato junto a Muñagorri.

Eugenio Ibarzabal nos convierte en testigos de los trágicos acontecimientos vividos por estos personajes y los utiliza como hilo narrativo para relatar la historia de Euskal Herria desde mediados del siglo XVIII al final de la Primera Guerra Carlista.

El próximo 2 de abril a las 18:30h, el escritor estará en el Museo Zumalakarregi presentando su último trabajo “Muñagorri, el conde y las condesas”. Se recomienda inscripción previa a la dirección de correo [mzumalakarregi@gipuzkoa.eus](mailto:mzumalakarregi@gipuzkoa.eus)